



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko otsailaren 17a

9. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzekoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat taxutu eta bidal dezan, PFEZean gizarte-intereseko beste xede batzuetarako laukitxoaren bidez lortutako tributu-dirusarreraren destinoa arautzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoiz Fundazioak sustatutako, finantzatutako edo kudeatutako azpiegiturak eta zerbitzuak eskuratze aldera Aezkoako, Erroko, Aurizko eta Luzaideko biztanleek eginiko eskaera aintzat har dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bizikletaren Plan Zuzendariari buruzko zenbait erabaki har ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun laguntzan interneten bidezko aurretiko txanda ezar dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresei babes eta laguntza ekonomikoak emateko baldintza izan dadin ez dezatela aurkeztu enplegu-erregulazioko espedienterik baldin eta langileekin alde aurretik adostu ez badira. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du beharrezkoa dela baremo bakar eta unibertsala mantentzea etxebizitzak esleitzeko prozesu guztietan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da komunikazio bat igor dezan gure erkidegoko langabeziari buruz eta egoera hori arintzeko hartu beharreko neurriei buruz. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, martxoaren 31 baino lehen egin daitezten, urtero-urtero, bere menpeko erakundeei lotutako deialdi guztiak. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan, hala eskatzen duten udalek udal zahar-etxeen kudeaketa publikoa berreskuratu ahal izan dezaten. Mozioa Erretiratzea (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, Madrileko Campo de las Naciones azokagunean gaur eginiko atentatua gaitzes-tekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako plaza kopurua handi dezaten. Erakundeeikiko Harremanetarako eta Gobernu-ko Eledunaren Batzordeak onetsia (17. or.).
- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Nafarroako euska-razko hedabideekin, haien eginkizuna eta biziraupena ziurtatze aldera. Hezkuntza Batzordeak onetsia (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren epe ertain eta luzeko finantzaketa berma dezan. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (18. or.).

#### F SAILA:

#### **Galderak:**

- Galdera, Sinboloei buruzko Foru Legearen aplikazioari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak, heldu den kanpainari begira, nekazaritzako ustiategien aseguruak murrizteko arrazoiari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (19. or.).
- Galdera, TRW Automotive España, S.L. enpresak Orkoien duen teknologia zentroa ixtea ekidite aldera Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (20. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartu dituen Nafarroako Gobernuak argitzeko zer gertatu zen Amaiurren, Nafarroaren konkista eta Amaiurko gazteluaren defendatzaileak oroitzeko ekitaldien bezperan, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (21. or.).
- Galdera, Buru-osasunari buruzko Estrategia Nazionala onestearen eta babestearen gainean hartutako neurriei buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (21. or.).
- Galdera, Arte Garaikidea Sustatu eta Garatzeko Plan Orokorrari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Donejakue Bidearen Departamentuarterko 2008-2010 Plan Orokorrari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (23. or.).
- Galdera, José Luis García Fernández jaunaren testuak eragindako polemikari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (24. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zergatik ez duen jakinarazi errenta aitorten bidez gizarte-intereseko beste xede batzuetara bideratutakoa aurrekontura bereizi gabe bideratzen dela, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (25. or.).
- Galdera, 50 urtetik goitiko biztanleei, prebentzio neurri gisa, eginkarien testa egiteko aukerari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (25. or.).
- Galdera, jakiteko ea noiz beteko duen Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren agindua, Nafarroako Gobernu premiatzen duena aho-hortzetako osasunaren arloko programa bat sor dezan buruko gaixotasunak eta/edo ezgaitasun psikikoa duten pertsonak artatzeko, Ana Figueras Castellano andreak egina (26. or.).
- Galdera, Ostizko saihebideari buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (27. or.).
- Galdera, jakiteko ea Foruzaingoaren zer esperientzian eta Auzitegi Goreneko zer epaitan oinarrituta ezarri duen Lehendakaritza Departamentuak zazpi marihuana landare izateak ezartzen duela administrazio arau-haustearen eta delituaren arteko muga. Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Nafarroan ekoiztako produktuak AEBetara esportatzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (29. or.).

—Galdera, jakiteko zergatik aldatu duen Nafarroako Gobernuak eremu euskalduneko bide xafla elebidunetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (30. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamenduaren proiektua. Akats zuzenketa (31. or.).

—Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamenduaren proiektuaren 5.1 artikulua aldatzea (31. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Lege proposamena,  
Foru Komunitateko zergadunek  
gizarte-intereseko beste xede  
batzuetarako bideratzen duten  
tributuen % 0,7 arautzekoa**

**ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako arartekoak PFEZeko "gizarte-intereseko beste xede batzuk" aztertze txosten bat eman du argitara orain dela gutxi; txostenean esaten duenez, laukitxo horren bidez bildutako dirua

bereizi gabe eta zuzenean sartzten da Foru Ogasunean, zergadun nafarrek hautatutako xedeetara bideratu gabe, alegia. Halatan, PFEZaren bidez bildutakoaren % 0,7 Nafarroako Gobernuaren dirusarreren funts komunean sartzten denez, praktikan ez da betetzen zergadunek espresuki eginiko hautua, alde batera utzita politika publikoek, oro har, diru kopuru txikiagoa, berdina edo handiagoa jartzen duten ala ez "gizarte-intereseko beste xede batzuetarako".

Herritarrek hartutako erabakiekiko errespetuak eta erabaki horiek gauzatzeko modu zehatz eta berekiekiko errespetuak eskatzen du funts hori bereziki arautzea; alegia, definitu beharra dago zer diren foru erkidegoan "gizarte-intereseko beste xede batzuk", zehaztu beharra dago zertarako erabiltzen den % 0,7 horretan sartzten den diruaren azken destinoa, ezarri eta lehenetsi behar dira jarduerak eta jardueren hartzaileak, eta bide eman behar zaio Nafarroako Foru Komunitateko GKE-en eta irabazi asmorik gabeko entitateen parte-harteari eta inplikazioari.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araubide komunaren esparruan, Espainiako Gobernuak urtero banatzen du errenta aitorpenean Eliza Katolikoarentzat eta "gizarte-intereseko beste xede batzuetarako" bildutakoa. Azken kontzeptu hori GKE-ei itzultzen zaie, kasuan kasuko deialdiak eginez laguntza-programak, lankidetzaprogramak edo/eta ingurumena hobetzeko programak egiteko dirulaguntzak banatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateak zerga-araubide berekia duenez gero, Nafarroako GKE-ek eta elkarteek ezin dute parte hartu Espainiako Gobernuak tributudirusarrera horien kargura egiten dituen deialdietan. Alegia, Nafarroako GKEak, azaldutako arrazoi begi-bistakoak direla-eta, deialdi horietatik kanpo gelditzen dira, zergadun nafarrek ez dituztelako nazioko funts horiek elikatu bere % 0,7aren bidez.

Gauza ezaguna da, orobat, Nafarroako Foru Komunitatean lan egiten duten GKE-en ondoko eskaria: ahal den neurrian argitzea zer destino izanen duen zergadun nafarrek, bere borondatez, urtero-urtero hautatzen duten “gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko laukitxoaren bidez bildutakoak.

Foru lege proposamen honek orobat zehazten du zer diren Foru Komunitatearen esparruan “gizarte-intereseko beste xede batzuk,” eta unean uneko gizarte-errealitatearen beharrizan aldakorrei egokitzeko tresna bat jasotzen du.

Lau jarduera-multzo ezarrita, aintzatetsi eta artatu nahi dira GKE-en eta irabazi asmorik gabeko entitateen ohiko jarduera eremuak, ondokoak hain zuzen ere: beharrizan-egoeren aurreko gizarte-elkartasuneko jarduerak (hainbat talde xede dituzten programak eta proiektuak: drogazaleak, gizarteak baztertutakoei, guraso bakarreko familiari, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak, tratu txarrak jaso dituzten emakumeak, gutxiengo etnikoak, presoak, preso ohiak, pasadizokoak, zaharrak, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentSORIALAK dituztenak eta lanerako ezgaituta daudenak), natur ingurunea eta biodibertsitatea babesteko programak, natur baliabideen erabilera iraunkorra eta kutsadurari eta klima-aldaketari aurrea hartzea.

Eta horiekin batera, gizarte-intereseko beste xede batzuk sartzen dira alde baterako, hala nola zailtasun ekonomikoko nazioarteko egungo egoeran langabetuei laguntzea eta, ongizatearen estatuaren zutabe berri bat sortzeko tresna den alde-tik, Autonomia Pertsonalari buruzko Legea abian jarri eta hasiera batean garatzea.

**1. artikulua.** PFEZaren aitorpena egitean “gizarte-intereseko beste xede batzuk” hautatu duten zergadunen kuota osoen baturari % 0,7 aplikatetik heldu den zenbatekoarekin xede-izaerako funts bereki bat eratuko da, “gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa” izenekoa.

**2. artikulua.** “Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtseko” dirua soilik erabili ahalgo da Nafarroako GKE-ek eta elkarteek laguntza-xedeetara, nazioarteko garapenerako lankidetzara, prestaziorik gabeko langabetuei laguntzera eta Autonomia Pertsonalari buruzko Legea garatu eta babesteko jardueretara –estatuaren ekarpenen bidez finantzatzen ez direnetara– bideratutako lana finantzatzen.

**3. artikulua.** “Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa”, zehazki, aurreko artikuluan emandako irizpideen arabera banatuko dira lehentasunez, ondoko taldeekin bat:

1. Beharrizan-egoeren aurrean egiten diren gizarte-elkartasuneko jarduerak, hala nola horrelako egoeretarako proiektuak eta programak, xede dituztenak drogazaleak, gizarteak baztertutakoak, guraso bakarreko familiak, Espainiako naziokotasuna duten adingabeak, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, tratu txarrak jaso dituzten emakumeak, gutxiengo etnikoak, presoak, preso ohiak eta pasadizokoak; bai eta zaharrak, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentSORIALAK dituztenak eta lanerako ezgaituta daudenak ere, baldin eta laugarren multzoan jasota ez badaude.

2. Prestaziorik gabeko langabetuentzako laguntza.

3. Garapenerako nazioarteko lankidetzara, herrialde azpigaratuetako biztanle behartsuenen aldekoa, bereziki gatazka belikoa bizi duten edo pairatu duten herrialdeetan edo hondamendi naturalek larriki kaltetutako herrialdeen garapenerako lankidetzara.

4. Autonomia Pertsonalari buruzko Legea garatzeko laguntza.

5. Natur ingurunea eta biodibertsitatea babesteko programak, natur baliabideen erabilera iraunkorra eta kutsadurari eta klima-aldaketari aurrea hartzea.

**4. artikulua.** “Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa” honela banatuko da: % 25 1., 2. eta 3. jarduera-multzoetako bakoitzari, % 20 4. multzoari eta % 5 5. multzoari.

**5. artikulua.** Nafarroako Gobernuak aurreko artikuluetan aipatutako taldeetako bakoitzaren ehunekoa aplikatetik heldu den zenbatekotik gora bideratu ahalgo du, bost taldeetarako ateratzen den zenbatekoa murriztu gabe.

#### **6. artikulua.**

1. Hirugarren artikuluko 2. eta 4. jarduera-multzoek hiru eta bost urteko indarraldia izanen dute hurrenez hurren; izan ere, horien xedea da egoera ekonomikoaren arabera laguntza ematea eta Autonomia Pertsonalari buruzko Legea abian jarritzea eta hasiera batez garatzea.

2. Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak zuzenean garatu ahalgo ditu 2. eta 4. multzoen berezko jarduerak, osorik nahiz hein batean, baldin eta ez badago GKE-en eta irabazi asmorik gabeko entitateen behar adina proposamen edo aurkeztutako programek eta proposamenek ez badituzte biltzen helburuak lortzeko beharrezkoak diren pisua eta ezaugarri teknikoak.

**7. artikulua.** Nafarroako Gobernuak, urte bakoitzeko aurrekontuen legeak indarra hartu ondoko hogeita hamar eguneko epean gehienez ere, jarduera-multzo bakoitzari buruzko deialdia egingen du.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Nafarroako Gobernuak aurreko ekitaldiko “gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsaren” bete-tzea ebaluatzeko atal bat sartuko du aurrekontuen lege proiektuen oroitidazkietan, bai eta hurrengo ekitaldiari buruzko aurreikuspena ere, eta horiek in batera emanen ditu bildutakoaren zenbatekoa, “gizarte-intereseko beste xede batzuk” atalari dagokion % 0,7 aplikatetik heldu den zenbatekoa eta hurrengo ekitaldiari buruzko aurreikuspenak.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Seigarren artikuluan aipatzen diren 3 eta 5 urteko epeak bukatutakoan, horien ehunekoak proportzioan gehituko zaizkie gainontzeko taldeei, non eta ez diren talde horien ordezkoko beste jarduera talde batzuk sortzen lege aldaketa baten bidez, edo oraingoak luzatzen.

**Xedapen iragankor bakarra.** Zergadunek 2009ko errentaren kanpainan “gizarte-intereseko beste xede batzuetara” bideratzen duten % 0,7 aplikatetik heldu den zenbatekoa, 2010ean, “Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa” taxutzeko eta kudeatzeko aplikatuko da.

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzekoa**

### **ZIOEN AZALPENEA**

Martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 30. artikulua Nafarroako polizia kidegoetako lanpostuetan edo funtzionario gisa sartzeko hautaprobetan onartua izateko baldintzak ezartzen ditu, besteak beste ondokoa: “erregelamendu bidez ezartzen den gutxieneko garaiera izatea”.

Garaiera hori lanpostuak betetzeko kasuan kasuko deialdian zehazten da. Nafarroako Foruzaindako lanpostuak betetzeko 2006ko deialdian 1,70 metroko gutxieneko garaiera ezarri zen gizonezkoentzat, eta 1,65 metrokoa, berriz, emakumezkoentzat.

Gizonezkoen batez besteko garaiera 1,73 metrokoa da, eskatzen dena baino apur bat gehiago. Emakumezkoen batez besteko garaiera 1,61 metrokoa da –eskatutakoa baino txikiagoa da, beraz–, eta emakumeen ia % 30 dago 1,60 metrotik behera.

Kontuan hartu beharra dago, orobat, batez besteko zer garaiera eskatzen den beste polizia autonomiko batzuetan nahiz Polizia Nazionalaren Kidegoan sartzeko. Kasu horietan, aldatuz joan dira hautapen prozesuetako erregelamenduak, eta eskatzen den gutxieneko garaiera 1,65 metrokoa da gizonezkoen kasuan, eta 1,60koa, berriz, emakumezkoenentzat.

Hortaz, hurrengo deialdietan orain arte eskatutakoa eskatzea baztertzailerik da, hala gizonezkoen eta emakumeen artean egiten den bereizketagatik –askoz gehiago dira batez bestekora iristen diren gizonezkoak, emakumezkoak baino–, nola beste autonomia erkidego batzuetan eskatzen denagatik.

Gure ustez, beraz, beharrezkoa da lege horretako 30. artikulua aldatzea eta gaurkotzea.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 30. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letra aldatu eta honela geldituko da:

“e) Gutxienez ere 1,65 metroko garaiera izatea gizonezkoek, eta 1,60 metrokoa, berriz, emakumezkoek.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Indargabetu egiten da foru lege honek xedatuari kontra egiten dion maila bereko ala apalagoko arau oro.

**Azken xedapena.** Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra foru lege honek.

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat taxutu eta bidal dezan, PFEZean gizarte-intereseko beste xede batzuetarako laukitxoaren bidez lortutako tributu-dirusarrerren destinoa arautzeko.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru lege proiektu bat taxutu eta bidal dezan, PFEZean gizarte-intereseko beste xede batzuetarako laukitxoaren bidez lortutako tributu-dirusarrerren destinoa arautzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Foru Parlamentuan eginiko lan bilkura batean, Nafarroako Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren aurka Borroka egiteko Sareko ordezkariak adierazi zuten Nafarroako egoera berezia dela, PFEZaren % 0,7 "gizarte-intereseko beste xede batzuetarako" bideratzeko aukerari dagokionez.

"Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako" atalean bildutako ekarpen horiekin zenbait minis-

terioi dirulaguntzen deialdi publikoak egiten dituzte –adibidez, Kanpo Arazoetako Ministerioak bi deialdi ditu: bata aurrekontu arruntarekin egiten da, eta bestea PFEZaren deialdia da–, gobernuz kanpoko erakundeei edo irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzenduak. Erakunde horiek estatukoak izan behar dute, edota estatua baino esparru txikiagokoak, "programa integratuak aurkezten dituzten konfederazio, federazio edo antzeko elkarteetako kide badira." Aldiz, hori ez da aplikatzen Nafarroan.

1988tik, sistematikoki ezezkoa eman zaie Nafarroan egoitza duten gobernuz kanpoko erakundeei (bere autonomia fiskala dela eta), eta erabakia justifikatzen da, ez aurkeztutako programen kalitatea txarra delako, baizik eta Nafarroan gauzatzen direlako eta Ministerioaren ustez Foru Komunitateak izan duelako nahiko denbora Nafarroako zergadunek erabakitzen duten zerga-dirusarrerak arautzeko.

Gaur egun, Nafarroako legeriak ez du kontuan hartzen ekarpen horiek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako aplikatzea; are gehiago, baliabide publikoak xede zehatzei aplikatzea debekatzera iristen da. Hala ere, 1987tik, Nafarroako errenta aitorpenerako eredu guztietan agertzen da aipatu kuota elizara eta gizarte-intereseko beste xede batzuetara bideratzeko hautua.

Eman izan den argudioa da jada bideratzen direla funts nahikoak gizarte-intereseko beste xede batzuk deituriko klausularen bidez lortutako dirusarrerren helburu izateko legeriak ezarritako baldintzak betetzen dituzten proiektuetara, eta bideratutako funtsek kontzeptu horrengatik bildutakoa gainditzeko dutela. Hala ere, Nafarroako Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren aurka Borroka egiteko Sareak esaten duen moduan, hori horrela izan balitz, legeria aldatu zenean, hau da, por-



tzentaje hori sortu zenean eta bi aukeren arteko hautua egitea ahalbidetu zenean (eliza- edo gizarte-intereseko beste xede batzuk) edo 2007an, portzentajea % 0,5239tik % 0,7ra igo zenean, nabarmen handituko ziren gobernuz kanpoko dirulaguntzetara bideratutako kontusailak.

Ministerioaren erabakiek –lehenbizi dirulaguntzak murriztea, eta, ondoren, Nafarroako gobernuz kanpoko erakundeek aurkeztutako programa guztiei dirulaguntzak ukatzea– eta Nafarroan gai hori ez arautu izanak Nafarroako gobernuz kanpoko erakundeekiko bazterketa dakarte, bistakoa denez, eta are okerrago, Estatuak diruz laguntzen dituen programa horien xede diren pertsonak baztertzea dakarte, hala nola adineko pertsonak, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialak dituztenak, drogamendekotasuna dutenak, lanerako gai ez direnak, bazterketa soziala pairatzen dutenak, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak, bai eta garapenerako kooperazioa, ingurumena eta beste

hainbat programa sozial eta ingurumenari buruzkoak baztertzea ere.

Halaber, egoera horrek adierazten du Nafarroako herritarrekiko errespetu falta; izan ere, zergadun arduratsuak diren aldetik, aipatutako arazo sozial eta ingurumenekoen konponbidean parte hartzea erabakitzen dute.

Horrenbestez, Parlamentuak honako hau erabaki du:

Nafarroako Gobernua premiatzea sei hilabete epean presta eta Parlamentura igor dezan foru lege proiektu bat, zeinak arautuko baitu zergadunek “gizarte-intereseko beste xede batzuk” hautuaren bidez egiten duten ekarpenaren ondorioz lortutako PFEZaren dirusarreraren xedea, berariazko deialdien bidez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 2an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoiz Fundazioak sustatutako, finantzatutako edo kudeatutako azpiegiturak eta zerbitzuak eskuratze aldera Aezkoako, Erroko, Aurizko eta Luzaideko biztanleek eginiko eskaera aintzat har dezan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Itoiz Fundazioak sustatutako, finantzatutako edo kudeatutako azpiegiturak eta zerbitzuak eskuratze aldera Aezkoako, Erroko, Aurizko eta Luzaideko biztanleek eginiko eskaera aintzat har dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Diru publiko finantzaturiko Itoiz fundazioa zenbait jarduera eta azpiegitura egiten ari da Itoizko urtegiaren inguruan. Lan horien helburua da eremu hori konpentsatzea urtegiaren eraikuntzak izandako eraginengatik.

Egiten ari diren azpiegituren artean dago Agoizko kiroldegia. Kiroldegi horretan eskola-jarduerak egiten dira, bai eta aisia- eta kirol-jarduerak ere, Aezkoako, Erroko, Aurizko eta Luzaideko udaletako biztanleentzat. Herri horietako biztanleentzat azpiegiturak erabiltzeko baldintza ekonomikoak eta lehentasunezkoak desberdinak dira

Agoizko, Beteluko edo Artzibarko biztanleentzat ezarritako baldintzen aldean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Aezkoako, Erroko, Aurizko eta Luzaideko biztanleek eginiko eskaera aintzat har

dezan, Itoiz Fundazioak sustatutako, finantzatutako edo kudeatutako azpiegiturak eta zerbitzuak Agoizko, Artzibarko edota Beteluko biztanleen baldintza beretan eskuratze aldera.

Iruñean, 2009ko otsailaren 2an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramirez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bizikletaren Plan Zuzendariari buruzko zenbait erabaki har ditzan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Bizikletaren Plan Zuzendariari buruzko zenbait erabaki har ditzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Bizikletaren Plan Zuzendaria egokitu eta berrikus dezan, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena

Bizikletaren Plan Zuzendaria Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua zenak sustatutako agiri bat da, zeinaren xedea baitzen bizikletaren estrategia bat ezartzea foru erkidegoaren eremuan, mugikortasun jasangarriaren aldeko politika bati lotuta, bai eta txirindulari-bideen sare bat zehaztea, udaletako bizikle-

ta planak sustatzea eta bizikletaren plangintzarako eta txirindulari-bideen sareak diseinatzeko gomendioak ematea ere. Gaur egun, plana idatzita dago eta bada amaitutako agiri bat.

2008an, eta PSN-PSOEren zuzenketa bati esker, ahalbidetu zen arlo horretako ekimenak lantzen jarraitu ahal izatea. Ekimen horiek oso aurreratu daude eta azken bultzada batekin posible litzateke abian jartzea eta gauzatzea, batez ere kontuan hartzen badugu badirela Estatuko eta Europako laguntzak halako ekimenak gauzatzeko.

Gaur egun Landa Garapeneke eta Ingurumen kontseilaria denak Parlamentuan egin zuen agerrialdia kolpe latza izan zen plan horrentzat; izan ere, adierazi zuen beharrezkoa dela plana sakonki berrikustea eta abian jartzeko asmoa atzeratzea, eta alderdi hau ez dago batere ados planteamenduko horrekin.

Esan behar da, egoera ekonomikoa alde batera utzita, Bizikletaren Planak garapen-aukera handiak dituela; izan ere, ingurumenarekin lotura duenez, ahalbidetzen du, kudeaketa on batez laguntzaz, hein handi batean Europako eta Estatuko funtsekin finantzatzea.

Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko erabakiak har ditzan berehala:

Lehena.- Bizikletaren Plan Zuzendaria egokitzea eta plana betetzeko epeak eta egin beharreko jarduerak berrikustea.

Bigarrena.- Egokitzapen hori bi hilabeteko epean egitea, Bizikletaren Plan Zuzendariaren idazketaren jarraipena egin zuen departamentuar-teko batzordearen bidez.

Hirugarrena.- Plana berrikusi ondoren, onestea eta bere kudeaketa esleitzea dio dagokion organoari.

Laugarrena.- Nafarroako Gobernuak abian jar-tzea beharrezkoak diren zuzemenak, txirrundulari-

bideak egiteko eta bizikletaren erabilera sustatze-ko baliabide ekonomikoak aurreikusten dituzten Estatuko eta Europako programetako dirulagun-tzak izapidetzeko.

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da oinarrizko osasun laguntzan interneten bidezko aurretiko txanda ezar dezan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzar-rari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bes-teak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parla-mento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturi-ko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita oinarrizko osasun laguntzan interneten bidezko aurretiko txanda ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parla-mento-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen da oinarrizko osasun laguntzan interneten bidezko aurretiko txanda ezar dezan.

Zioen azalpena

Informazioaren teknologia berrien erabilera zentzuzkoak aukera eman ahal digu osasun-eredu eraginkorrago bat zehazteko, zerbitzu ematera bideratua eta herritarrak ardatz dituen.

Informazioaren teknologia berrien aldeko apus-tua indartzeko beharra agerikoa da; balio erantsia duten zerbitzuak sortu behar dira, jarduera publi-koari eraginkortasun handiagoa emanen diotenak.

Helburuak izan behar du teknologia berrietan oinarritutako zerbitzu publikoak sustatzea, garde-nak, irisgarriak eta eraginkorrak izanen direnak. Hori dela eta, gure ustez, oinarrizko osasun laguntzan interneten bidezko aurretiko txanda ezartzea aurrerapena izanen litzateke arlo horre-tan.

Neurri horrek irisgarritasun handiagoa ekarriko du herritarrentzat, aukera izanen baitute txanda hartzeko urteko 365 egunetan eta 24 orduetan; halaber, baliagarria izanen da osasun arloko langi-leen lana arintzeko eta antolatzeko.

Honen bidez proposatzen den ekimenak ez du ekimen isolatua izan behar; aldiz, pizgarri bat izan behar du administrazio elektroniko berri bat egitu-ratzeko, osasun arloan, baina administrazio publi-koaren mailan.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parla-mento de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du oinarrizko osasun laguntzan interneten bidezko aurretiko txanda ezar dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresei babes eta laguntza ekonomikoak emateko baldintza izan dadin ez dezatela aurkeztu enplegu-erregulazioko espedienterik baldin eta langileekin alde aurretik adostu ez badira.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enpresei babes eta laguntza ekonomikoak emateko baldintza izan dadin ez dezatela aurkeztu enplegu-erregulazioko espedienterik baldin eta langileekin alde aurretik adostu ez badira.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako langabeziari buruzko datuak oso txarrak dira eta egungoa larrialdi ekonomiko eta sozialeko egoera dela adierazten dute.

2009ko urtarrilean, langabezia % 10,37 hazi zen Nafarroan, eta 3.419 pertsona gehiago sartu ziren gure erkidegoko langabetuen multzoan.

2008an, erregistratutako langabeziak % 52,75 egin zuen gora, eta 11.381 pertsonak izena eman zuten Nafarroako Enplegu Zerbitzuko lan-eskatzaileren zerrendetan.

Baina, kopuru absolutuez gain, bereziki kezkarria da langabezia zein azkar ari den hazten Nafarroan. Izan ere, joera hori Estatuan baino nabarmenagoa da.

Urritik hasita, erregistratutako langabezia % 10 inguru hazi da hilabetero Nafarroan; aldiz, Espainian hazkundera Nafarroan baino 4 edo 5 puntu txikiagoa izan da.

Hala, 2009ko urtarrilean, langabezia % 10,37 hazi zen Nafarroan, Estatuan % 6,35 hazi zen bitartean. Iragan abenduan, langabeziak %9,24 egin zuen gora Nafarroan; Estatuan, berriz, % 4,67 hazi zen.

Laburbilduz, Nafarroan oso larria da langabetuen kopuru absolutuaren hazkundera, baina, halaber, larria da ere hazkunde horren erritmoa, Estatuko batez bestekoa baino askoz ere azkarragoa baita.

Eta hori gertatzen ari delarik, Nafarroako Gobernua mugatzen da enplegu-erregulazioko espedienteak izapidetzera eta, ekonomiaren eta aurrekontuen arloan, azken urteotako politika gauzatzera.

Bidegabea eta eskandalagarria da atzeraldi ekonomikoaren kostuak langileek ordaindu behar izatea.

Nafarroa oso gaizki doa –enplegu-suntsiketari buruzko datuek hala erakusten dute–, eta Nafarroako Gobernuak bere propagandan eta paperezko planetan korapilatuta jarraitzen du.

Enplegu-suntsiketa Nafarroan larrialdi sozial eta ekonomikoaren mailara iritsi da, eta horrek ohiz kanpoko neurriak hartzea eskatzen du.

Ohiz kanpoko neurriak enplegua eta langileak defendatzeko; ohiz kanpoko neurriak aurrera egiteko gaur egungo hondamendira eraman gaituen eredu ekonomikoaren aldaketan.

Eta neurriek eskatzen dute Nafarroako Gobernuak erabiltzea eskura dituen baliabide eta tresna guztiak.

Baliabideak eta tresnak langileak defendatzeko enplegu-erregulazioko espedienteen aurrean, askotan produkzioa deslokalizatzen prozesuak ezkututzen baitituzte eta sarritan itzuli beharrik gabeko laguntza publiko handiak jaso dituzten enpresek aurkezten baitituzte.

Ez da onargarria babes eta dirulaguntza publiko funtsezkoak –itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak, kredituak, lurzoru industrialak– jaso dituzten enpresek enplegu-erregulazioko espedienteak aurkeztea alde aurretik bere langileekin negoziatu eta adostu gabe.

Hori dela-eta, IUN/NEBren foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresei babes eta laguntza ekonomikoak –itzuli beharreko dirulaguntzak, lurzoru industrialak, maileguak, akzioen partaidetza–emateko baldintza izan dadin ez dezatela aurkeztu enplegu-erregulazioko espedienterik baldin eta langileekin alde aurretik adostuta ez bada.

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du beharrezkoa dela baremo bakar eta unibertsala mantentzea etxebizitzak esleitzeko prozesu guztietan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu beharrezkoa dela baremo bakar eta unibertsala mantentzea etxebizitzak esleitzeko prozesu guztietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Orain dela gutxi, pertsonak eta familiek etxebizitza bat eskuratu ahal izateko egoera hobetze

aldera hartu beharreko neurri buruzko eztabaida politikoan, zenbaiten jarrerak auzitan jarri du egungo baremazio-eredua, etxebizitza babestuen esleipen-hartzaile izateko aurkezten diren guztientzako berdintasunezkoa eta unibertsala dena. Zehazki, mahaigainean jarri izan da sindikatuek nork bere baremoa ezartzeko aukera, sindikatuek sustatutako etxebizitza babestuak esleitzerakoan.

Jarrera hori, parlamentu-talde honen ustez, lege indardunak bilatzen duen baremoaren unibertsalizazioaren aurka doa bete-betean, eta, ezartzen baldin bada, pribilegio-, bereizkeria- eta klientelismo-habia bat sor daiteke, eta administrazio publikoek ezin dute halakorik onartu.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak arlo horretan duen jarrera botoen bidez ezartzeko xedez, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak berresten du baremo bakar eta unibertsala mantendu behar dela etxebizitzak esleitzeko prozesu guztietan, salbuespenik egin gabe, halako moduz non herritar guztiak eta familia guztiak berdintasun egoeran egonen diren etxebizitza babestuak esleitzeko prozesuetan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da komunikazio bat igor dezan gure erkidegoko langabeziari buruz eta egoera hori arintzeko hartu beharreko neurriei buruz.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita komunikazio bat igor dezan gure erkidegoko langabeziari buruz eta egoera hori arintzeko hartu beharreko neurriei buruz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako langabeziari buruzko datuak oso txarrak dira eta egungoa larrialdi ekonomiko eta sozialeko egoera dela adierazten dute. 2009ko urtarrilean, langabezia % 10,37 hazi zen Nafarroan, eta 3.419 pertsona gehiago sartu ziren gure erkidegoko langabetuen multzoan. 2008an, erregistratutako langabeziak % 52,75 egin zuen gora, eta 11.381 pertsonak izena eman zuten Nafarroako Enplegu Zerbitzuko lan-eskatzaileen zerrendetan.

Baina, kopuru absolutuez gain, bereziki kezka-garria da langabezia zein azkar ari den hazten Nafarroan. Izan ere, joera hori Estatuan baino nabarmenagoa da. Urritik hasita, erregistratutako langabezia % 10 inguru hazi da hilabetero Nafarroan; aldiz, Espainian hazkundera Nafarroan baino 4 edo 5 puntu txikiagoa izan da.

Horri gehitu behar zaizkio Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren aurrean aurkeztu diren enplegu-erregulazioko espedienteak, departamentu horren jarduna gainezkatu baitute.

Nafarroa gaizki doa, eta langileek ezin daitezke izan krisialdi finantzario eta ekonomiko ordaintzen dutenak. Enplegu-suntsiketak larrialdi sozial eta ekonomikoaren mailara iritsi da Nafarroan, eta horrek ohiz kanpoko neurriak hartzea eskatzen du. Ohiz kanpoko neurriak enplegua eta langileak defendatzeko; ohiz kanpoko neurriak aurrera egiteko gaur egungo hondamendira eraman gaituen eredu ekonomikoaren aldaketan. Eta neurriek eskatzen dute Nafarroako Gobernuak erabiltzea eskura dituen baliabide eta tresna guztiak.

Hori dela eta, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan 198. artikuluari jarraikiz, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jakinarazpen bat igor dezan legebiltzarrera langabeziak gure erkidegoan duen egoeraz eta lanpostuen galtze etengabe hori arintzeko hartu behar diren neurriei buruz, Parlamentuko Osoko Bilkurak krisi ekonomikoari eta Nafarroan dituen ondorioen gaineko eztabaida monografiko bat egin dezan eta parlamentu-taldek aurkez litzaketan proposamenak eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, martxoaren 31 baino lehen egin daitezen, urtero-urtero, bere menpeko erakundeei lotutako deialdi guztiak.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, martxoaren 31 baino lehen egin daitezen, urtero-urtero, bere menpeko erakundeei lotutako deialdi guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen egin daitezen instituzio, erakunde edo pertsonak ukitzen dituzten deialdi guztiak.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak urtero departamentu bakoitzerako onetsitako aurrekontuaren exekuzioa indar politiko guztien lehentasunezko helburua da. Hori gerta dadin, ukituta dauden edo interesa duten instituzio, erakunde eta partikularrek aukera eduki behar dute deialdi bakoitzaren terminoak eta norainokoa ahal bezain laster ezagutzeko, behar adina denbora izan dezaten haietan inplikaturiko ekintzak aurrera eramateko.

2008an gertatutako zenbait kasuk erakusten dute neurriak hartu beharra dagoela, zenbait deialdi ez zirelako ebatzi azken hiru hilekoa ondo hasita egon arte.

Bestalde, Nafarroako aurrekontu orokorrak behar diren garaian eta moduan onesteak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1a baino lehen, azken urteetan egin den bezala, gauzak erraztu egiten ditu hein handi batean, eta aukera ematen du aurrekontu horren onespren berantiarren ondorioz geroratu ohi zen zeregina aurreratzeko.

Azkenik, aurtengo otsailaren 4an, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak aho batez onetsi zuen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, zeinaren bidez Osasun Departamentua horretara premiatzen baitzen. Eztabaidan zehar, bertan ziren talde guztietako eledunak bat etorri ziren esatean printzipio hori administrazioak eginiko deialdi guztietan ezarri beharko litzatekeela.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuan Nafarroako Gobernua premiatzen du urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen egin daitezen instituzio, erakunde edo pertsonak ukitzen dituzten deialdi guztiak.

2. Nafarroako Gobernuak, kasu berezietan, deialdiren bat geroratu ahalko du, betiere haren berezitasuna dela-eta beharrezkoa bada eta hori justifikatzeko arrazoiak argi azaldu ondoren, eta horren berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari.

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan, hala eskatzen duten udalek udal zahar-etxeen kudeaketa publikoa berreskuratu ahal izan dezaten.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan, hala eskatzen duten udalek udal zahar-etxeen kudeaketa publi-

koa berreskuratu ahal izan dezaten" Mozio hori 2008ko urriaren 10eko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

## **Adierazpen instituzionala, Madrileko Campo de las Naciones azokagunean gaur eginiko atentatua gaitzestekoa.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak erabat gaitzesten du Madrileko Campo de las Naciones azokagunean gaur eginiko atentatua, zeinean segurtasun indar eta kidegoei lanari esker biktimak izatea ekidin baita.

Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesela helarazi nahi die atentatuak kaltetutakoek, eta esker ona azaldu nahi die Estatuko segurtasun indar eta kidegoei, indarkeria terroristaren aurka eta herritarren eskubideen eta askatasunen defentsaren alde etengabe egiten duten lanarengatik.

Nafarroako Parlamentuak berresten du indar demokratikoen batasuna ezinbestekoa dela ETA garaitzeko eta izuaren gaitza amaitzeko, bere asmo bakarra baita herritarren askatasunak murriztea eta atsekabea eta samina hedatzea. ETAK jakin behar du bere ekintza terrorista doilorrak baino indartsuagoak izanen direla gizarte osoaren batasuna eta zuzenbidearen eta askatasunen estatua defenditzeko asmo sendoa. ETAK ez du ezertxo ere lortuko atentatu horien bidez, eta atentatu-egileek Justiziaren esku bukatuko dute eta espetxean beteko dute bere zigorra."

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



## **Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen dira helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako plaza kopurua handi dezaten.**

### *ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO ETA GOBERNUKO ELEDUNAREN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren Batzordeak, 2009ko otsailaren 6an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen dira helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako plaza kopurua handi dezaten”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen dira helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako plaza kopurua handi dezaten**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du lankidetzaren hitzarmen bat sinatuz Kanarietako Autonomia Erkidegoarekin, Lan Ministerioaren eta aipatu erkidegoko Gizarte Ongizate, Gazteria eta Etxebizitza Sailaren artean sinaturiko hitzarmenean oinarrituta. Hitzarmenaren xedea izanen da erkidego horretatik hamar

adingabe ekartzea eta hartzea, horretarako prozedurak abian jartzen dituzenean, eta haiekin gizarte, hezkuntza, eta lan arloko proiektu bat garatzea, eta, gainera, haur gehiago hartzeko konpromisoa hartzea, gainerako autonomia erkidegoetan aurrera eramaten diren esperientzien arabera, eta esperientzia horiek Nafarroarako aplikagarriak badira, ezertan galarazi gabe gaur egun ematen diren zerbitzuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du abian jar dezaten beharrezkoa den baliabidea Kanarietatik hamar adingabe hartzeko eta artatzeko, 2007 proiektuan ezarritako ereduari jarraikiz.

3. Nafarroako Gobernuak eskatzen dio Estatuko Gobernuari beste bi urterako berritu ditzen Nafarroan MENA programaren barruan dauden adingabeen lan eta egoitza baimenak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du hiru hilabeteko epean aurkez dezaten legebiltzarrean helduen laguntzarik gabeko adingabeei hezkuntza eta lan arloko laguntza emateko plan bat, emantzipaziorako edota heldutasunera igarotzeko neurriak edo programak jaso eta gaur egun dauden programak finantziatuko dituenak.

5. Nafarroako Gobernuak Estatuko Gobernuari eskatzen dio gaur egun ematen duen kopurua –80 euro, adingabe eta eguneko– handitu dezala.

**Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Nafarroako euskarazko hedabideekin, haien eginkizuna eta biziraupena ziurtatze aldera.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2009ko otsailaren 6an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Nafarroako euskarazko hedabideekin, haien eginkizuna eta biziraupena ziurtatze aldera." Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Nafarroako euskarazko hedabideekin, haien eginkizuna eta biziraupena ziurtatze aldera**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmen bat edo gehiago sina ditzan gure erkidegoan jardunean diren euskarazko hedabideekin, euskararen erabilera bultzatzeko beharrezkoa den finantzaketa ekonomikoaren objektibazioa ziurtatze aldera.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren epe ertain eta luzeko finantzaketa berma dezan.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren epe ertain eta luzeko finantzaketa berma dezan".

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak 2009ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko urriaren 31ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Sinboloei buruzko Foru Legearen aplikazioari buruzkoa.***IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Sinboloei buruzko Foru Legearen aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Toki Administrazioako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Sinboloei buruzko Legearen aplikazioari buruzko galdera.

Sinboloei buruzko Foru Legea eta Gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak hartzeari buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legea indarrean egon arren, zergatik ez zaie eskatzen udalei sinbolo frankistak erretira ditzaten?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak, heldu den kanpainari begira, nekazari-tzako ustiategien aseguruak murrizteko arrazoari buruzkoa.***MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak, heldu den kanpainari begira, nekazari-

ritzako ustiategien aseguruak murrizteko arrazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zein da arrazoia Nafarroako Gobernuak 100. aseguru lerroari (fruta ustiategiak) ematen dion dirulaguntza % 19 murrizteko 2008-2009 kanpaina? Ba al daki kontseilariak dirulaguntzaren murrizketa horrek zer eragin izan duen nekazarien polizetan?

Iruñean, 2009ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas

---

**Galdera, TRW Automotive España, S.L. enpresak Orkoien duen teknologia zentroa ixtea ekidite aldera Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, TRW Automotive España, S.L. enpresak Orkoien duen teknologia zentroa ixtea ekidite aldera Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak dagokion Batzordean ahoz erantzuteko:

TRW Automotive España SL enpresak I + G + B-ren arloan lan egiten du eta zenbait ibilgailu-talderentzat, eta mundu guztirako, balazta-sistema berriak diseinatzen eta garatzen ditu. Zer ari da egiten Nafarroako Gobernua aipatu enpresak Orkoien duen zentro teknologikoa itxi ez dezaten?

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, jakiteko zer neurri hartu dituen Nafarroako Gobernuak argitzeko zer gertatu zen Amaiurren, Nafarroaren konkista eta Amaiurko gazteluaren defendatzaileak oroitzeke ekitaldien bezperan.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer neurri hartu dituen Nafarroako Gobernuak argitzeko zer gertatu zen Amaiurren, Nafarroaren konkista eta Amaiurko gazteluaren defendatzaileak oroitzeke ekitaldien bezperan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M<sup>a</sup> Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioak

Nafarroako konkista eta, bereziki, Amaiurko gazteluaren defendatzaileak gogoratzeko ekitaldiak direla eta, 1512-2012 Nafarroa Bizirik plataformak aipatu gazteluaren defendatzaileei eskainitako omenaldi bat antolatu zuen Amaiurren.

Ilunpean ibiltzea gustura dutenak bezperan agertu ziren ekitaldia egin behar zen tokian, eta pintaketak egin zituzten monolitoan eta bideko beste sinbolo batzuetan.

Gertakari horiek zigorrik gabe geratu direla eta, parlamentari honek galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak gertakari horiek argitzeko eta erantzunkizunak garbitzeko?

Iruñean, 2009ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, Buru-osasunari buruzko Estrategia Nazionala onestearen eta babestearen gainean hartutako neurriei buruzkoa.**

*MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Buru-osasunari buruzko Estrategia Nazionala onestearen eta babestearen gainean hartutako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2006ko abenduaren 11n, Buru-osasunari buruzko Estrategia onetsi zuen Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluak. Nafarro-

ako Foru Komunitateko Osasun kontseilariak estrategia hori babestu zuen.

Hori dela eta, honako galdera egin nahi dut:

Zer neurri hartu ditu, edo hartuko ditu, Buru-osasunari buruzko Estrategia Nazionala onetsi eta babestearen gainean?

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

**Galdera, Arte Garaikidea Sustatu eta Garatzeko Plan Orokorrari buruzkoa.***ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Arte Garaikidea Sustatu eta Garatzeko Plan Orokorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

2007ko urriaren 30ean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak mozio bat aurkeztu zuen legebiltzarrean, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokor bat presta zezan eta plan horretan xede horretarako diren jardueren multzo osoa jasoko zedin.

2007ko abenduaren 13an, parlamentu-talde guztiak aho batez onetsi zuten mozio hura. Mozio-

ak ondoko testua zuen, hitzez-hitz:

“1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokor bat presta dezan lau hilabeteko epean, non xede horretarako diren jardueren multzo osoa jasoko baita.

2.- Plan orokor horretan, gutxienez ere, ondokoak jaso beharko dira: Lortu nahi diren funtsezko helburuak.

Egun dauden bitartekoetatik, zeintzuek bete ditzaketen, hein batean, aurreikusitako helburuak.

Atzeman diren oinarriko beharrak eta horiek konpontzeko modu operatiboa.

Aurreikusitako ekintza berriak eta horiek gauzatzeko egutegia.

Aurreikusitako ekimenen ondoriozko aurrekontu-behar berriak.”

Aurrekoa ikusirik:

Galderaren testua

a.- Nafarroako Gobernuak ba al daki zenbat hilabete igaro diren mozioa onetsi zenetik?

b.- Zer arrazoi indartsu izan dira eragotzi dutenak plana Parlamentuan aurkeztea, parlamentu-taldeek aho batez onetsi zuten moduan?

c.- Ikusirik orain arte Gobernuak sistematikoki ez dituela betetzen Parlamentuak onetsitako ekimenak, ba al du asmorik aurrerantzean betetzeko, bai egutegiari bai edukiari dagokienez?

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Donejakue Bidearen Departamentuarterko 2008-2010 Plan Orokorrari buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Donejakue Bidearen Departamentuarterko 2008-2010 Plan Orokorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

2007ko urriaren 30ean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ekimen bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen presta zezan Donejakue Bidearen Departamentuarterko 2008-2010 Plan Orokorra.

Mozio hura eztabaidatu eta aho batez onetsi zuen Parlamentuko Osoko Bilkurak. Halaxe zioen, hitzez-hitz:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru urteko jarduketa-plan orokor bat presta dezan lau hilabeteko epean (2008, 2009 eta 2010. urteetarako), eta bertan, Donejakue Bidea dela-eta, egunera ditzan abian dituen programak, birformula ditzan helburuak eta beste batzuk proposa ditzan.

2. Donejakue Bidearen Departamentuarterko 2008-2010 Plan Orokorra ondoko zehaztapenak bederen bildu beharko ditu:

Jarduera esparru zehatzen aipamena, eta horiek planifikatzeko eta abian jartzeko administrazio-ko organo arduradunaren zehaztapena. Esparru bakoitzeko ekintza zehatzak, eta bakoitzaren gutxi gorabeherako kostua.

Ekintza garrantzitsuenak gauzatzeko kronograma.

Aurreikusitako ekintzak egiteko aurrekontu beharrianak, kasua bada.”“

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Ahozko galderaren testua

a.- Nafarroako Gobernuak ba al daki zenbat hilabete igaro diren mozioa onetsi zenetik?

b.- Zer arrazoi indartsu izan dira eragotzi dutenak plana Parlamentuan aurkeztea, parlamentu-taldeen aho batez onetsi zuten moduan?

c.- Noiz bidaliko da aipatu plana Parlamentu-  
ra?

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, José Luis García Fernández jaunaren testuak eragindako polemikari buruzkoa.**

### *MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, José Luis García Fernández jaunaren testuak eragindako polemikari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M<sup>a</sup> Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilari Carlos Pérez-Nievas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zuk zuzentzen duzun Hezkuntza Departamentuak eskatu zion José Luis García Fernándezi –psikologo klinikoa eta sexologian aditua izateaz gain, gai horri buruzko hainbat lan espezializatu eginak ditu– sarrera-idazki bat presta zezan, beste

kolaborazio batzuekin batera liburuxka batean argitaratzeko. Liburuxka hori bigarren hezkuntzako ikastetxe batean egin behar zen antzezipen baten ikusleen artean banatzekoa zen.

Aipatu lana zenbait zatiz osatuta dago, zeinak aztertzen baitituzte, besteak beste, alkoholaren edo drogen kontsumoaren hastapenak, lehen sexu-harremana, gazteen bizitzako lehen indarkeria kasua, edo *bullying* kasuak.

José Luis García Fernándezek azpimarratu duenez, kolaborazio-eskarian zehazten zen arlo bakoitzeko espezialista bat behar zutela, eta inoiz ez zioten aipatu lehen sexu-harremani buruzko beste artikulua batzuk eskatu behar zizkietela lau profesionali.

Eskatzaileek galdeginda artikulua laburtu ostean, bere kolaborazioa atzera bota zen, argudiatuta “ez dela probokazioa areagotu behar gai polemikoen inguruan”.

Hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

José Luis García Fernández jaunaren testuaren zer zatik eragin dezake, zure ustez, gai polemikoen inguruan probokazioa areagotzea?

Iruñean, 2009ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Luisa Mangado Cortes



## **Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zergatik ez duen jakinarazi errenta aitopenen bidez gizarte-intereseko beste xede batzuetara bideratutakoa aurrekontura bereizi gabe bideratzen dela.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zergatik ez duen jakinarazi errenta aitopenen bidez gizarte-intereseko beste xede batzuetara bideratutakoa aurrekontura bereizi gabe bideratzen dela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzuteko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Ekonomia eta Ogasun Batzordean erantzun dezan.

Zergatik Nafarroako Gobernuak ez dio inoiz jakinarazi gizarteari herritarrek errenta aitopenen bidez gizarte-intereseko beste xede batzuetara bideratutakoa aurrekontura bereizi gabe bideratzen dela?

Iruñean, 2009ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, 50 urtetik goitiko biztanleei, prebentzio neurri gisa, eginkarien testa egiteko aukerari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, 50 urtetik goitiko biztanleei, prebentzio neurri gisa, eginkarien testa egiteko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako

galdera hau egin du, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean ahoz erantzun diezaioten:

Duela gutxi egin da Minbiziaren arloko Azterketi buruzko XI. Sinposioa. Bertan, Espainiako onkologoek gaixotasun honen erronkak aztertu zituzten, eta, ekitaldiaren koordinatzaile Díaz-Rubio jaunak jakinarazi zuenez, badira esperientzia pilotuak eginkarien azterketa ezartzeko 50 urtetik gorako herritarrentzat, eginkarrietan odolik agertzen den ikusi eta, hala izanez gero, kolonoskopia bat egite aldera polipoa kentzeko, bidezkoa bada.

Galbahe mota hori egin da aldi batez Nafarroako oinarrizko osasun laguntzaren esparru batzuetan. Ez dakigu zertan den gaur egun izandako esperientziaren ebaluazioa, ezta zer asmo duen Osasun Departamentuak prebentzio-ekimen hori abian jartzeko. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut.

Osasun Departamentuak ba al du asmorik abian jartzeko 50 urtetik gorako herritarren eginkarien azterketa?

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

**Galdera, jakiteko ea noiz beteko duen Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren agindua, Nafarroako Gobernua premiatzen duena aho-hortzetako osasunaren arloko programa bat sor dezan buruko gaixotasunak eta/edo ezgaitasun psikikoa duten pertsonak artatzeko.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea noiz beteko duen Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren agindua, Nafarroako Gobernua premiatzen duena aho-hortzetako osasunaren arloko programa bat sor dezan buruko gaixotasunak eta/edo ezgaitasun psikikoa duten pertsonak artatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana

Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2008ko apirilaren 23an eginiko bilkuran, erabaki bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena aho-hortzetako osasunaren arloko programa bat sor dezan buruko gaixotasunak eta/edo ezgaitasun psikikoa duten pertsonak artatzeko.

Aho-hortzetako osasunaren arloko programa hori ez da abian jarri, eta buruko gaixotasuna duten pertsonen eta haien familien beharrianak ez dira desagertu; aitzitik, profesionalek prebentzio eta konponketa tratamenduak egiteko aholkua ematen dute, baina tratamendu horiek oso garestiak dira. Hortaz, ondokoa jakin nahi dut:

Noiz beteko du Gobernuak Parlamentuaren agindu hori?

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Ostizko saihesbideari buruzkoa.**

*JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, Ostizko saihsbideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

N-121-A errepideko Ostizko saihsbidea da Errepideen Plan Zuzendariko II. Planeko 23. jardu-

era. Jarduera horrek aurreikusten du Ostizen saihsbide berria egitea, horretarako N-121-A errepidearen trazadura aldatuta Enderizko bidegurutzetik hasita.

Saihsbidearekin Ostizko herriguneko zirkulazioa kendu nahi da, bai eta Ultzamako errepideko bidegurutzea hobetu ere. Saihsbidea obretan dago oraindik eta arriskutsua da, ikusita duela gutxi bertan izandako istripuak oso larriak izan direla; batez ere, aurreko asteburuan izandako biak.

Galderaren testua:

- Zergatik izaten ari dira hain arriskutsuak Ostizko saihsbidea egiteko lanak?

- Zure departamentuaren ustez, dagoen arriskua lanak direla-eta sortzen da, edota badira beste arrazoi batzuk eragiten dutenak trazadura-aldaketa berez arriskutsua izatea?

- Eta dagoen arriskuaren aurrean, departamentuak ba al du asmorik premiazko zerbait egiteko, ahal den neurrian puntu horretako arriskua ekiditeko?

Iruñean, 2009ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: José M.<sup>a</sup> Vázquez Royo

## **Galdera, jakiteko ea Foruzaingoaren zer esperientzian eta Auzitegi Goreneko zer epaitan oinarrituta ezarri duen Lehendakaritza Departamentuak zazpi marihuana landare izateak ezartzen duela administrazio arau-haustearen eta delituaren arteko muga.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Foruzaingoaren zer esperientzian eta Auzitegi Goreneko zer epaitan oinarrituta ezarri duen Lehendakaritza Departamentuak zazpi marihuana landare izateak ezartzen duela administrazio arau-haustearen eta delituaren arteko muga.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Kanabisaren auto-laborantzaren aurkako ekintzei buruzko galdera.

Foruzaingoaren zer esperientzian eta Auzitegi Goreneko zer epaitan oinarrituta ezarri du Lehendakaritza Departamentuak zazpi marihuana landare izateak ezartzen duela administrazio arau-haustearen eta delituaren arteko muga?

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, Nafarroan ekoizitako produktuak AEBetara esportatzeari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan ekoizitako produktuak AEBetara esportatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Lehena: zenbat diru egin zuten, eurotan, Nafarroan ekoizitako produktuen AEBetarako esportazioek 2008an.

Bigarrena: Nafarroan ekoizitako produktuen AEBetarako esportazioek eginiko diru kopurua, eurotan, 1990etik 2007ra, bi urte horiek barne.

Iruñean, 2009ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek Sodenaren eta Acciona, S.A.-ren arteko akzioen erosketari buruzko zenbait dokumentu eskatu zuen. Una vez examinada la misma, este parlamentario desea conocer:

1.- Zein dira arrazoiak 2004ko urriaren 29ko datarekin bi kontratu pribatu sinatzeko, bakarra sinatu ordez? Bi kontratu egin ziren notarioari ezkutatzeko akzioen salerosketaren eskritura sinatzerakoan bazegoela hitzarmen osagarria, eta, hala, saihesteko hitzarmen hori erregistro publikoetan, hala nola Merkataritza Erregistroan, inskribatzea edota Balore Merkaturiko Batzorde Nazionalari jakinaraztea?

2.- Nola bermatu du Nafarroako Gobernuak hitzarmen osagarriaren 10. klausula, konfidentzialtasun klausula ezartzen duena, EHNren salerosketa 34 entitateekin negoziatu bazen, isilpean eta Nafarroako Parlamentuaren ezagutzarik gabe?

3.- Nola bermatu du Nafarroako Gobernuak akzioen salerosketaren kontratuko 6. klausula, azkenekoz arbuiaututako hautagaiari, hau da, azkenean bigarren geratu zenari, dagokionez?

4.- Sodenak Iberdrolaren akzioak erosi izanari buruzko auditoria egite aldera, bidali al da Nafarroako Comptos Ganberara Sodenaren partaidea zuten Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarra, S.A.-ren akzioen salmentari buruzko espedienteko dokumentazio guztia, eta zehazki, gonbidaturiko 34 entitateei buruzkoa?

Iruñean, 2009ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, jakiteko zergatik aldatu duen Nafarroako Gobernuak eremu euskalduneko bide xafla elebidunetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik aldatu duen Nafarroako Gobernuak eremu euskalduneko bide xafla elebidunetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai taldeko Aitor Etxarri foru parlamentari jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Nafarroako eremu euskalduneko xafla elebidunetan orain arti-

oko irizpidea zertaz aldatu den argitzeko galdera hau egin nahi du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Zioak

Nafarroan euskara ofiziala den eremuan Nafarroako Gobernuak paratu izan dituen bide xaflatan bi hizkuntza ofizialak erabili ohi ditu, lehen (edo goiko aldean) euskara eta gero (edo beheko aldean) gaztelania.

Halere, berriki paratu izan diren xafla berri guztietan –eta horietako anitz daude, bereziki Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa dutenak–, Nafarroako Gobernuak hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpide hori aldatu du: lehen (edo goiko aldean) gaztelania eta gero (edo beheko aldean) euskara idatziz.

Hori horrela, honako hau da galdera:

Zergatik aldatu du Nafarroako Gobernuak eremu euskalduneko bide xafla elebidunetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea?

Iruñean, 2009ko otsailaren 5ean

Foru-parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamenduaren proiektua**

### **AKATS ZUZENKETA**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkarien eta Langile Batzordearen arteko akordioaren eranskinean akatsa dagoela ikusita –akordioa 2009ko otsailaren 5eko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, bidezkoa da ondoko akats zuzenketa egitea:

Ondokoa dioen tokian: “Erregelamendua”

Honakoa behar du: “Erregelamenduaren proiektua.”

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

## **Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamenduaren proiektuaren 5.1 artikulua aldatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Parlamentuaren ordezkarien eta Langile Batzordearen arteko akordioaren eranskin gisa doan Oporren Erregelamendua Mahaiaren 2009ko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez onetsi zen. Ikusita akordio horren sinatzaileek testu berria eman diotela proiektuko 5.1 artikuluari, ondokoa ERABAKI DA:

1. Aipatu akordioaren eranskin gisa doan erre-

gelamenduaren proiektu horretako 5.1 artikulua-  
ren aldaketa onestea. Hona testu berria:

“1. Oporrak urte natural bakoitzean hartu beharko dira, baina oporrak hartzeko epea hurrengo urteko urtarrilaren 31ra arte luzatu ahalko da, 3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

